

ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

6.612

55/2003 FORU DEKRETUA, urriaren 21eko Diputatuen Kontseiluarena, uztailaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren 435/92 Foru Dekretua aldatzen duena. Azken foru dekretu horrek zerga-paradisu iritzitako herrialde eta lurralteak zehazten zituen.

Uztailaren 7ko 435/1992 Foru Dekretuak, Arabako Lurralde Historikoko zerga-arraudian xedatutakoaren arabera, zerga paradisuztatzat hartu beharreko herrialde eta lurralteak zehaztu zituen.

Urtarrilaren 31ko 116/2003 Errege Dekretuaren bidez erregimen komunari buruzko legeetan aldaketa bat sartu zen; hain zuzen ere, uztailaren 5eko 1080/1991 Errege Dekretuan, zerga paradisuei buruzkoan. Aldaketa horren arabera, Espainiarekin zerga gaei buruzko informazio trukaketarako akordio bat edo zergapetze bikoitza saihesteko informazio trukaketarako hitzarmen bat izenpetzen duten zerga paradisuek zerga paradisu izateari utzik dioite akordio edo hitzarmen hori indarrean sartzen den egunean.

Foru dekretu honek urtarrilaren 31ko 116/2003 Errege Dekretuak jasotako aldaketa Arabako zerga sistemana sartzea du helburu.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak honi buruz emandako txostenak ikusi dira.

Hortaz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bil-kuran aztertu ondoren, hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.- Uztailaren 7ko 435/1992 Foru Dekretua aldatzea. Foru dekretu horrek, Arabako Lurralde Historikoko zerga-arraudian xedatutakoaren arabera, zerga paradisuztatzat hartu beharreko herrialde eta lurralteak zehaztu zituen.

Hona hemen egiten zaizkion aldaketak:

1. Uztailaren 7ko 435/1992 Foru Dekretuko artikulu bakarra hemendik aurrera 1. artikulua izango da.

2. Uztailaren 7ko 435/1992 Foru Dekretuari 2. artikulu bat gehi-tzen zaio. Hona hemen artikulu horrek dioena hitzez hitz:

"Espainiarekin zerga gaei buruzko informazio trukaketarako akordio bat edo zergapetze bikoitza saihesteko informazio trukaketarako hitzarmen bat izenpetzen duten herrialde eta lurralteak, 1. artikuluan zerrendatutakoak, zerga paradisu izateari utzik dioite akordio edo hitzarmen hori indarrean sartzen den egunean."

AZKEN XEDAPENA

Foru Dekretu honek Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra eta 2003ko otsailaren 2tik aurrera ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko urriaren 21a.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak

6.615

833/2003 ERABAKIA, urriaren 21eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Zurbanoko Kontzejuarekin hitzarmen bat izen-petza onartzan da aldundiaren Derrigorrezko Dirubilketa Agentziaren bidez kontzeju horretako eskubideak eta kredituak premiamendu bidean kobratzeko.

Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 8. artikuluko lehen paragrafoan ezartzen du udal erakundeak eta foru aldundiak lankidetzan arituko direla zergak kudeatu, likida-tu, ikusku eta biltzeko, eta horretarako dagokion hitzarmena izen-petuko dutela.

Disposiciones y Resoluciones Administrativas

Decretos Forales del Consejo de Diputados

6.612

DECRETO FORAL 55/2003, del Consejo de Diputados de 21 de octubre, por el que se modifica el Decreto Foral del Consejo de Diputados 435/92, de 7 de julio, de determinación de los países y territorios considerados paraísos fiscales.

El Decreto Foral 435/1992, de 7 de julio, determinó, a efectos de lo dispuesto en la normativa fiscal del Territorio Histórico de Álava, los países y territorios que deben ser considerados paraísos fiscales.

Mediante el Real Decreto 116/2003, de 31 de enero, se ha introducido una modificación en la legislación de régimen común, en concreto en el Real Decreto 1080/1991, de 5 de julio, sobre paraísos fiscales. Esta modificación señala que los paraísos fiscales "que firman con España un acuerdo de intercambio de información en materia tributaria o un convenio para evitar la doble imposición con cláusula de intercambio de información dejarán de tener la consideración de paraísos fiscales en el momento en que dichos convenios o acuerdos entren en vigor".

El presente Decreto Foral tiene por objeto incluir en el sistema tributario de Álava la modificación contenida en el Real Decreto 116/2003, de 31 de enero.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

Artículo único.- Se modifica el Decreto Foral 435/1992, de 7 de julio, por el que se determinan, a efectos de lo dispuesto en la normativa fiscal del Territorio Histórico de Álava, los países y territorios que deberán ser considerados paraísos fiscales.

Las modificaciones que se introducen son las siguientes:

1. El artículo único del citado Decreto Foral 435/1992, de 7 de julio, pasa a ser el artículo 1.

2. Se añade un artículo 2 al Decreto Foral 435/1992, de 7 de julio, con la siguiente redacción:

"Los países y territorios a los que se refiere el artículo 1 que firman con España un acuerdo de intercambio de información en materia tributaria o un convenio para evitar la doble imposición con cláusula de intercambio de información dejarán de tener la consideración de paraísos fiscales en el momento en que dichos convenios o acuerdos entren en vigor."

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y empezará a surtir efectos desde el 2 de febrero de 2003.

Vitoria-Gasteiz, a 21 de octubre de 2003.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Acuerdos del Consejo de Diputados

6.615

ACUERDO 833/2003, del Consejo de Diputados de 21 de octubre, que aprueba la suscripción de un Convenio para la recaudación en vía de apremio, a través de la Agencia Ejecutiva de esta Diputación, de los créditos y derechos correspondientes al Concejo de Zurbano.

El artículo 8, párrafo primero, de la Norma Foral 41/1989, de 19 de julio, reguladora de las Haciendas Locales, establece que las Entidades Municipales y la Diputación Foral colaborarán mediante la suscripción del oportuno Convenio, en todos los órdenes de gestión, liquidación, inspección y recaudación de los tributos.